

2018/06/06

06/06/2018

Familia agurgarriak,

Aurreko ikasturteetan bezala, gure nagusien ziklo amaiera ospatu nahi dugu. Elkarren arteko ospakizun bat izatea gustatuko litzaiaguke. Jaialdiarekin hasiko gara eta ondoren askari bat egingo dugu.

Hona hemen horien azalpenak:

JAIALDIA

- *Eguna: Ekainaren 15a*
- *Ordutegia: 16:00-17:30*
- *Lekua: Karmengo aretoan*
- *Sarrerak aretoko atean batuko dira.*
- *Segurtasuna dela eta, familia bakoitzeko bi pertsonen edukiera errespetatu mesedez.*
- *Jaialdi bukatu ostean, betiko irteera ordena jarraituz irtengo dira, askarira zuekin batera joateko.*

ASKARIA

- *Ordutegia: 18:00-19:30*
- *Lekua: Iparragirre ikastola (2. solairua)*
- *Gure ikastolako nagusientzako egun garrantzitsua da, jai honekin batera haien bizitzako garai bat agurtzen dutelako eta berriro ere haiek protagonistak izatea nahi dugu. Bai prozesuak bai emaitzetaz gozatu dezaten asmoz.*
- *Ikastolan gogo handiz andereño eta lagunekin jaialdia prestatzen ari dira. Zuei zuen seme-alabekin batera, gustoko duten errezeta bat (tortila, sandwitxak, bizkotxoa, pintxoak, enpanada, erroskillak,) egitea proposatzen dizuegu beste familia eta kideekin elkarbanatzeko.*
- *Kontuz alergikoekaz, mesedez ondo adierazi janari hoiek.*
- *Egun horretako goiz osoan zehar ekartzeko aukera izango duzue, horretarako ikastolako sarreran orgak prest izango dituzue.*
- *Guztiok topaketa honetaz gozatzeko ikastola antolakuntzaz arduratuko da: haurtzaindegi zerbitzua, jantokiko prestakuntza (edariak, zapiak...)*
- *Karmengoko aretoan bezela segurtasuna dela eta, familia bakoitzeko bi pertsonen edukiera errespetatu mesedez.*

Eskerrik asko zuen laguntzagaitik

*Begoña Bayer
5 urteko koordinatzailea*